Albisteak

Eusko Ikaskuntzako azken berriak

Euskara eta Justiziari buruzko jardunaldia

Eusko Ikaskuntzak ostiralero prestatzen duen *Euskonews Media* agerkari elektronikoak (www.euskonews.com) Euskara eta Justizia hartu zuen gai monografikotzat bere 120. alean. Horren harian, gai horren inguruko jardunaldi bat antolatu zuen maiatzean Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean, agerkarian parte hartu zuten adituek Euskara eta Justiziaren arteko harremanari buruz duten ikuspuntua jendaurrean azal zezaten.

Francisco Javier Ezkiagak, Zuzenbide Fakultateko dekanoak jardunaldien aurkezpena egin ostean, Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburuorde den Abel Muniategik hartu zuen hitza, hirugarren boterea deritzonean euskararen presentzia areagotzen joateak duen garrantzia azpimarratuz (***Eleria***ko hurrengo alean emango dugu argitara Justizia sailburuordearekin izandako elkarrizketa). Mahaiean izan ziren, halaber, Jon Agirre, HAEEko Itzulpen Zerbitzu Ofizialeko zuzendaria, Jasone Urkola, Euskara eta Irakasleen dekano ordea, Itziar Alkorta, **Eleria** aldizkariko idazkaria.

Europako Eskubideen Gutunari buruzko Jardunaldiak

Europar Kontseiluak Funtsezko Eskubideen Europako Gutuna onetsi zuen iazko abenduan Nizan izandako bilkuran. Maite Zelaia Garagarza irakaslea koordinatzaile izanik, eta HAEEren laguntzarekin, Gutun honen garrantzia eta edukia aztertzeko jardunaldiak prestatu zituen Eusko Ikaskuntzak maiatzaren 18an.

Honen inguruan hitz egiteko, hainbat aditu bildu ziren bertan: Lorenzo Martin Retortillo, Complutense Unibertsitateko Zuzenbide Administratiboko katedraduna eta Europar Batzordeko Funtsezko Eskubideen Adituen Taldeko kidea; Pablo Perez Tremps, Madrilgo Carlos III Unibertsitateko Zuzenbide Konstituzionaleko katedraduna; Alejandro Saiz Arnaiz, EHUko Zuzenbide Konstituzionaleko katedraduna eta Epaile Eskolako irakaslea; Ricardo Alonso García, Complutense Unibertsitateko Zuzenbide Administratiboko katedraduna, eta Jose Maria Muñoa Ganuza, Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako ordezkaria.

Saio hauen ostean, alderdi politiko desberdinetako ordezkariak bildu zituen mahainguru bat izan zen, Gutunaren inguruko hainbat ikusmolde eta kritika eman zitzaten aditzera. Hala, Jose Maria Muñoa Ganuza (EAJ), Joxerramon Bengoetxea (EA), Hur Gorostiaga (EH) eta Isabel Lopez Aulestia (IU) izan ziren solasaldian. Aipatzekoa da PP eta PSOE alderdiei parte hartzeko gonbidapena luzatu zitzaien arren, errefusatu egin zutela Jardunaldietara etortzea.

Eleria-ren datorren alean, jardunaldi hauei buruzko berri zehatza emango digu Maite Zelaia irakasleak.

Hiznet, Internet bidezko Hizkuntza Plangintza Ikastaroa

Soziolinguistikaren oinarrizko ezagutzak eskaintzeko, hizkuntzaren egoera ulertzeko, normalkuntzarako bidean hartu beharreko estrategiak finkatzeko, hizkuntza gutxituei teknologia berrien eskutik datozkien erronkak ezagutzeko eta euskararen egoera zehatzaren berri izateko asmoz sortu da *Hiznet* ikastaroa.

Iñaki Martinez de Luna da zuzendaria, eta Eusko Ikaskuntza, Euskal Herriko Unibertsitateko Soziologia Saila, Udako Euskal Unibertsitatea eta SEI Elkartea ditugu urritik maiatzera bitartean luzatuko den internet bidezko ikastaro honen antolatzaileak. Euskaraz emango da, eta ikastaro osoa edota moduluka egiteko aukera dago.

Izena emateko epea 2001eko irailaren 30era arte dago zabalik. Argibide gehiagorako, helbide elektronikora idatzi (hiznet@infonegocio.com), edota web orria bisita dezakezu (www.eusko-ikaskuntza.org/HIZNET).

Eleria, Deia egunkariko Ortzadar gehigarrian

Deia egunkariko *Ortzadar* gehigarriak Itziar Alkorta, **Eleria**ko idazkaria elkarrizketatu zuen eskuartean duzun aldizkari juridikoari eta, oro har, euskarazko ikerketa juridikoari buruz mintzatzeko. Uztailaren 6ko alean, **Eleria** aldizkariak sortzerakoan izan zituen erronken berri ematen da, zein xederekin sortu zen, nola bilakatu den, eta zer nolakoa den bere edukia. Itziar Alkortaren esanetan, *"batzuentzat gauza nahiko bitxia izango da, eta pentsa dezakete ezin daitekeela horrelakorik egin, baina euskarak balio du bai eskolak emateko, eta baita ikerketa juridikoa egiteko ere".*

Era berean, eta Bibliografiaren atalean adierazten dugun legez, Virginia Tamayo irakasleak Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundearen eskutik argitaratu duen *Justizia eta Burujabetza. Nazioarteko Jardunaldiak* liburu mardulak tarte berezia eskaini dio ***Eleria*** aldizkariak 7. alean gai honi berari eskaini zion atalari ere. Horrela, jardunaldietan parte hartu zuten bertako zein kanpoko adituei egin genizkien elkarrizketak ingelesez, frantsesez nahiz gaztelaniaz jaso dira liburu honetan, beren edukiaren intersaz jabetuz, herrialde desberdinetako ahalik eta irakurle gehienek irakurtzeko aukera izan dezaten.

Justizia Sailetik zer berri?

EAEko Justizia Administrazioko hizkuntza normalkuntzarako neurriak finkatzen dituen dekretua onartu da

Eusko Jaurlaritzak 117/2001 Dekretua, ekainaren 26koa onartu du, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko hizkuntza normalkuntzarako neurriak finkatzen dituena. Bere xede nagusia, Justizia Administrazioko agente, laguntzaile eta ofizialen kidegoetako plantilletan eta auzitegiko medikuen kidegoko lanpostuetan hizkuntza eskakizunak ezartzeko irizpideak finkatzea da.

Zioen adierazpenean aipatzen denez, Dekretu honen eraginpean dauden kidegoetako langileen estatutuaren berezitasunak hartu dira kontuan araudiaren printzipio eta ildo nagusiak finkatzeko, eta, beraz, euskara jakitea ezinbesteko baldintza denean jarriko zaie lanpostuei hizkuntza eskakizuna, eta merezimendua denean, aldiz, araudi organikoek diotena beteko da.

Hizkuntzaren gaineko auziak

Hizkuntza eskubideak defendatzeko Behatokia sortu du Kontseiluak

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak hizkuntza eskubideen Behatokia sortu berri du, Euskal Herriko hizkuntza eskubideak arlo publiko nahiz pribatuan defendatzeko xedearekin. Paula Kasares da bertako zuzendaria, eta Iruñan du egoitza.

Behatokiak hainbat ekimen aurreikusi ditu bere jarduera garatzeko; hala nola, Euskararen Telefonoa zabaltzea, herritarrek beren kexu eta salaketak aurkezteko, hizkuntza eskubideen egoerari buruzko urteroko Txosten baten prestaketa, eta abar.

Hizkuntz Kontseilua eratu da Baionan

Funtsean lau zeregin nagusi dauzka uztailean Baionan sortu den Hizkuntz Kontseiluak: erakunde desberdinen lanak koordinatzea, euskararen inguruko proposamenak luzatzea, euskararen egoerari dagokionez begirale lanak egitea, eta etorkizunerako egitasmoak antolatzea. Erramun Baxok Euskal Kultur Erakundeko presidentea izanen da Hizkuntz Kontseiluko lehendakaria.

Beste

Gobernuak Justizia Administrazioan euskara erabiltzeko dekretua helegin du

Estatuko Abokatuak eskuduntza gatazka positibo bat tarteratu du Auzitegi Konstituzionalaren aurrean, Eusko Jaurlaritzak iazko abenduaren 26an onetsitako dekretuaren aurka, zeinak, besteak beste, Justizia Administrazioan euskararen erabilera eta preso dauden bigarren gradura arteko ahaide odolkideak bisitatzeko baimenak arautzen dituena.

Helegilearen iritzian, aipaturiko dekretuak Estatuaren eskuduntzak ukitzen ditu, idazkari judizial, ofizial, agente eta auxiliarren estatutu juridikoko hainbat elementu arautu dituelako Euskal Autonomia Erkidegoak, hori Estatuari dagokionean.

Estatuko Abokatuaren esanetan, bi arlotan da inkonstituzionala aipaturiko Dekretua: batetik, koordinazioari dagokionez, funtzionario figura berri bat arautzen du Bulego Judiziala zuzentzeko, eta ofizial bat izendatzen du koordinatzaile gisa. Bestetik, lizentzia eta baimenen arauketari dagokionez, Deketuak araudi estatalean agertzen ez diren bi mota aurreikusten ditu: bederatzi hilabete baino gutxiagoko seme-alabaren bat duten funtzionarioek lana egunean ordu betez uzteko eskubidea izatea, eta, bigarren gradura bitarteko odolkiderik preso balute, eta lan orduetatik kanpo ikusteko aukerarik ez balute, bisitatzeko baimena izatea.

Helegindako Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioan euskararen normalkuntzarako Plan baten egituraketa ere aurreikusten du, eta hizkuntza eskakizun zehatz bat daukaten langileez hornituko diren lanpostuak zehazten ditu.

Eusko Jaurlaritzak martxoaren 10ean Ministro Kontseiluak egindako eskuduntza gabeziaren errekerimendua atzera bota ostean jo du Gobernu zentral Auzitegi Konstituzionalera.

Foru ordenamenduaren inguruko ikerketak sustatzeko hitzarmena

Euskal Zuzenbidearen azterketan jardutera bideratuta dago Euskal Herriko Unibertsitatearen eskutik sortu berria den Euskal Herriko Zuzenbide Historikorako Insitutua, eta, horren harian, foru ordenamenduaren inguruko ikerketak sustatzeko lankidetza hitzarmen bat sinatu zuen apirilean Gipuzkoako Foru Aldundiarekin. Institutuaren aldetik, bere zuzendari den Joseba Agirreazkuenagak sinatu zuen, eta Foru Aldundiaren izenean, berriz, Roman Sudupe ahaldun nagusiak.

Aurreikusita dauden helburuen artean, honakoak aipa litezke: Euskal Foru Zuzenbide Historikoari buruzko liburutegi birtual espezializatu bat sortzea, urtero euskal zuzenbideari buruzko sinposio bat antolatzea, Institutua nazioartean ezagutzera ematea, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Zuzenbide Historikoarekin lotuta egin ditzakeen kontsulta historiko-juridikoei erantzutea.

Bibliografia

Monografiak



EUDEL. *Ingurumenari buruzko udal-ordenantza eredua*, Bilbo: EUDEL, 2000; 645 or. Ingurumenaren Babes Orokorrari buruzko 3/1998 Legeak Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri guztiek ingurumena babesteko ordenantzak onetsi beharra ezartzen du. Hori dela-eta, EUDELek gida didaktiko bat eskaintzen die udalei, beren beharren arabera egokitu ditzaketen hainbat testu proposatuz. Liburuaren amaieran, gainera, terminoen glosategi bat ere argitaratu du.



TAMAYO SALABERRIA, Virginia. "Eleria, Euskal Herriko Legelarien Aldizkaria". In: *Justizia eta Burujabetza. Nazioarteko Jardunaldiak*, Donostia: Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundea, 2001; 381-427 orr. Donostian 2000. otsailean *Justizia eta Burujabetza*-ren inguruan izandako jardunaldien berri zehatza jasotzen du liburu honetan Virginia Tamayo irakasleak; parte-hartzaile bakoitzaren hitzaldiak, jardunaldien inguruko datuak eta abar jasotzen ditu bertan, xehetasun handiz. Era berean, *Eleria* aldizkariak jardunaldi hauetako hizlariei egindako elkarrizketak ere jasotzen ditu.

Itzulpenak



Zigor Kodea. Itzultzaileak: Alexander Contreras, Cesar Gallastegi, Aitziber Irigoras, Jon Landa, Anjel Lobera, Rafael Sainz de Rozas, Andres Urrutia, Esther Urrutia eta HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2001; 630 or. Deustuko Unibertsitateak eta Euskal Herriko Unibertsitateak, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin batera, Zigor Kodea euskaratu dute, elkarlanean. Kode honek euskaraz zein gaztelaniaz eskaintzen ditu testuak, eta hiztegi bat ere jasotzen du. Itzulpen lan honi buruzko xehetasun gehiago, egileetako bat den Jon Landa irakasleak emango dizkigu, *Eleria*ren hurrengo alean.

Artikuluak



ARREGI PEREZ, Mikel; CUADRA LASARTE, Sabino. "Euskararen erabilera arautzeko arautegien bilakaera Nafarroan (1986-2001)", In: *Administrazioa Euskaraz, 32. zkia.,* Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2000; 12. or. Modu labur baina argigarrian, euskararen erabilerari buruzko Nafarroako araudien ezaugarri nagusiak azaltzen dituzte artikulu honetan Nafarroako Gobernuko teknikari diren bi egile hauek (135/1994 eta 372/2000 Foru Dekretuak).

Hizkuntza



ALBERDI LARIZGOITIA, Xabier; SARASOLA ERRAZKIN, Ibon. *Euskal estilo libururantz: gramatika, estiloa eta hiztegia,* Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2001; 360 or.
Liburu honetan, gaur egungo euskara estandarrean nabaritu ohi diren gramatika-oker, estilo-zalantza eta hiztegi-gorabehera nagusiak aurkituko ditu irakurleak. Lanak bi zati nagusi eta osagarri ditu: lehen zatian gramatika- eta estilo-kontuak landu ditu Xabier Alberdi EHUko irakasleak, eta bigarrenean euskara batuko hiztegi-auziak jorratu ditu Ibon Sarasola EHUko katedradun eta euskaltzainak.

JAKIN. "Euskalgintza auzitan?", In: *Jakin*, *123/124 martxoa-ekaina 2001*; 238 or.
Ale honetako zati nagusian, Joan Mari Torrealdai *Jakin* aldizkariko zuzendariak hizkuntz politikaren inguruan komunikabide idatzietan azken urteotan agertu diren iritziak bildu eta aztertzen ditu, euskararen normalizazio prozesua auzitan jarriz. Horrela, batetik hezkuntza sistema ideologizazio, indarkeria eta arrazakeriarekin lotzen dituzten iritziak jaso ditu; bestetik hizkuntz politikaren funtsezko kontzeptuak zalantzan jartzea helburu dutenak aurkezten ditu, eta azkenik euskara, ideologia eta politikaren erlazio problematikoaren inguruko iritziak datoz. Beste alde batetik, eta liburuaren bigarren zati gisa, euskalgintzan diharduten 21 lankideren iritzi eta balorazioa ere biltzen da.

URRUTIA LIBARONA, Iñigo. "Hizkuntza Zuzenbideari buruzko Nazioarteko Akademiaren Kongresua: Herri hizkuntza - Estatu hizkuntza. Kronika", In: *Revista Vasca de Administración Pública*, *59. zkia.,* 2001; 451-454 orr.
Bere baitan juristak, hizkuntzalariak eta soziolinguistikan adituak biltzen dituen Hizkuntza Zuzenbideari buruzko Nazioarteko Akademiak Nazioarteko Kongresua antolatzen du bina urtero, eta Puerto Ricon ospatu da 2000. urteari dagokiona. Bertara hurbildutako ikerlarien ekarpenen eta ondorio nagusien berri ematen zaigu kronikan.

Tesien txokoa*

Administrazio Zuzenbidea

RUIZ DE APODACA ESPINOSA, Ángel María: *Ingurumen Zuzenbide integratua: araztegietako lohien eta beren norakoen erregulazioa.* **U:** NU. **Ur:** 2000. **Z:** Francisco de Borja López-Jurado Escribano.

SALVADOR ARMENDARIZ, María Amparo: *Banku publikoen estatutu juridiko-publikoa, merkatuaren menpe egotearen alderditik.* **U:** NU. **Ur:** 2000. **Z:** José Luis Martínez López-Muñiz.

Eliza Zuzenbidea

CAETANO PEREIRA, Francisco: *Berdintasun eskubidea eta generoaren kategoria egungo legedi katolikoan.* **U:** Deustu. **Ur:** 2000. **Z:** Jaime Oraá Oraá.

MIÑAMBRES FERNANDEZ, Jesús: *Ordezkaritza bidezko ofizioen horniketa.* **U:** NU. **Ur:** 2000. **Z:** Juan Ignacio Arrieta.

Finantza eta Zerga Zuzenbidea

SÁENZ DE OLAZAGOITIA DÍAZ DE CERIO, Javier: *Sozietate taldeen tributazio kontsolidatua. Indarrean dagoen erregimena eta erreformarako eredu bat.* **U:** NU. **Ur:** 2000. **Z:** Eugenio Simón Acosta.

SEGARA, Marie-Noëlle: *Hartzekodunen egoera prozedura kolektiboetan. Zuzenbide konparatua (Alemania, Espainia, Frantzia, Italia)* Orig. fr . **U:** Pau. **Ur:** 2000. **Z:** Bernard Saintourens.

Lan Zuzenbidea

ESQUIBEL MUÑIZ, Unai: *Kirolari profesionalen kontratuetako "erreszisio klausulak".* **U:** Deustu. **Ur:** 2000. **Z:** Manuel Mª Zorrilla Ruiz.

Merkataritza Zuzenbidea

ESTERUELAS HERNÁNDEZ, Francisco Javier: *Dokumentuzko kreditu transferigarri errebokaezina, Nazioarteko Merkataritza Ganberaren erregela eta usadio uniformeen arabera.* **U:** NU. **Ur:** 2000. **Z:** Eduardo Valpuesta Gastaminza.

REAL FLORES, María Jesús: *Kooperatibismoak Kontsumo Zuzenbidearen sorreran izan duen eragina.* **U:** Deustu. **Ur:** 2000. **Z:** Carlos Suárez González.

TORRUBIA CHALMETA, Blanca: *Markaren lagapen eta lizentzia, agortzearen doktrinaren ikuspegitik.* **U:** NU. **Ur:** 2000. **Z:** Eduardo Valpuesta Gastaminza.

Nazioarteko Zuzenbidea

ARREGUI CARNEROS, Mikel: *Estatu Independenteen Erkidegoa: sobiet osteko espazioan hegemonia errusiarra berreskuratzeko instrumentua.* **U:** EHU. **Ur:** 2000. **Z:** Kepa Sodupe Corcuera.

IRAEGUI BALENCIAGA, Aitor: *Kooperaziotik asoziaziora. Mercosur-en eta Europar Batasunaren arteko harremanaren ereduaren sorrera (1991-1999).* **U:** EHU. **Ur:** 2000. **Z:** Francisco Aldecoa Luzarraga.

Zuzenbidearen Filosofia

GARCÍA RUIZ, Leopoldo: *Zuzenbidea, interesak eta zibilizazioa. Roscoe Pound-en pentsamendu juridikoa.* **U:** NU. **Ur:** 2000. **Z:** Pedro Serna Bermúdez.

---

* Euskal Herriko unibertsitateetan defendatutako Zuzenbideko Doktorego Tesien zerrenda; hau da, Euskal Herriko Unibertsitatean, Nafarroako Unibertsitatean, Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Deustuko Unibertsitatean eta Pauko Unibertsitatean.

Laburduren zerrenda:
- U: Unibertsitatea
- Ur: Urtea
- Z: Zuzendaria

Unibertsitateak:
- Deustu: Deustuko Unibertsitatea
- EHU: Euskal Herriko Unibertsitatea
- NU: Nafarroako Unibertsitatea
- NUP: Nafarroako Unibertsitate Publikoa
- Pau: Pau-ko Unibertsitatea

Tesien hizkuntza:
- Orig. fr: Frantsesa.
- Orig. eu: Euskara.
- Gazteleraz aurkeztutakoek ez daramate ikurtxorik.

Zuzenbide Konstituzionala

CÁRDENAS GUTIÉRREZ, Salvador: *Espainia berriko enblematika juridiko eta politikoa (1558-1760)*. **U:** NU. **Ur:** 2000. **Z:** José Zafra Valverde.

Zuzenbide Publikoa

CHICHARRO LÁZARO, Alicia: *Subsidiarietate printzipioa eta Zuzenbide Komunitario europarra.* **U:** NUP. **Ur:** 2000. **Z:** José Antonio Corriente Córdoba.

ODRIOZOLA IGUAL, María Cristina: *Forma, Espainiako ezkontza sisteman.* **U:** EHU. **Ur:** 2000. **Z:** Adoración Castro Javier.

ORENA DOMÍNGUEZ, Aitor: *Urrapen tributarioen arloko jurisprudentzia eta doktrina ekonomiko-administratibo espainiarraren azterketa.* **U:** EHU. **Ur:** 2000. **Z:** Ernesto Lejeune Valcárcel.

Zuzenbide Zibila

BLANCO LÓPEZ, Jorge: *Atzerritarrak lurralde nazionaletik kanporatzea: uztailaren 1eko 7/1985 Lege Organikoko eraentza.* **U:** Deustu. **Ur:** 2000. **Z:** Francisco Lledó Yagüe.

CHINEA GUEVARA, Josefina: *Kredituen konpentsazioa, berme gisa.* **U:** Deustu. **Ur:** 2000. **Z:** Ricardo de Angel Yagüez.

GALÁN CORTÉS, Julio César: *Erantzukizun medikua, informatuta emandako onespenaren aurrean.* **U:** Deustu. **Ur:** 2000. **Z:** Ricardo de Angel Yagüez.

GALICIA AIZPURUA, Gorka Horacio: *Legitima eta oinetxekotasuna. Nahitaezko ondorengotza Bizkaiko Zuzenbidean.* **U:** EHU. **Ur:** 2000. **Z:** Jacinto Gil Rodríguez.

GOÑI RODRÍGUEZ DE ALMEIDA, María: *Kreditu hipotekarioa negozio bidez kantzelatzeko idazpena.* **U:** NU. **Ur:** 2000. **Z:** Luis Arechederra Aranzadi.

MARTÍN ORIVE, Eva: *Jaiogabea, ebakuntza medikuen ondorioz jasandako kalteak erreklamatzeko babes eraginkorraren jasotzaile bezala.* **U:** Deustu. **Ur:** 2000. **Z:** Francisco Lledó Yagüe.

SAN JUAN CRUCELEGUI, Javier: *Berme independenteak nazioarteko kontratazioan.* **U:** Deustu. **Ur:** 2000. **Z:** Ricardo de Angel Yagüez.

BERRIAK. *Eleria.* 8, 2001, 135-143

Bidean dauden Legeak*

1. Eusko Legebiltzarra

1.1. Lege proposamenak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Proposatzailea	Argitalpena
Eduki Ekonomiko edo Soziala duten Arau Publikoen Eraginkortasuna Kontrolatzeari buruz	2001.09.12	Euskal Talde Popularra	2001.09.14

2. Nafarroako Parlamentua

2.1. Foru Lege Proposamenak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Proposatzailea	Espedientea
Merkataritza Denda Handientzako Zerga bat sortzekoa	01.04.02	CDN	Pro - 10/01
Lurraldearen Antolaketa eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 273 artikulua aldatzekoa	01.04.02	CDN	Pro - 11/01
Nafarroako zergetan Ogasun Lokalen Parte Hartze Fondoaren Zenbatekoa eta Banatzeko Formula 2002tik 2004ra Bitarteko Aurrekontuetan Ezartzekoa	01.04.03	CDN	Pro - 12/01
Nafarroako Ogasun Lokalen martxoaren 10eko 2/1995 Legea aldatzekoa	01.04.03	CDN	Pro - 13/01
Etxean eta Bikoteen Harremanetan Indarkeria Prebenitzeko Neurriak Hartzekoa	01.04.10	CDN	Pro - 14/01
Nafarroako zergetan Ogasun Lokalen Parte Hartze Fondoaren Zenbatekoa eta Banatzeko Formula 2002tik 2004ra Bitarteko Aurrekontuetan Ezartzekoa	01.04.20	SPN	Pro - 15/01
Nafarroako Kontseiluaren martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea aldatzekoa	01.04.23	CDN	Pro - 16/01
Gaixoak Testamentu Bitalerako, Informaziorako eta Dokumentazio Klinikorako dauzkan Eskubideei buruzkoa	01.04.25	CDN	Pro - 17/01

---

* *OHARRA: Irakurle, lege proiektu hauek 2001ko irailaren 14ean zeuden egoeran agertzen dira tauletan. Litekeena da aldizkariaren argitarapenera bitarteko denboran horietakoren bat lege bihurtu izana.*
ITURRIAK: Eusko Legebiltzarreko eta Nafarroako Parlamentuko mahaiak.

Arauaren izena	Sarrera eguna	Proposatzailea	Espedientea
Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeako 55. artikuluari paragrafo berri bat eranstekoa (4.e)	01.05.03	EH	Pro - 18/01
Osasunbideako Erizainen Karrera Profesionala arautzekoa	01.05.04	CDN	Pro - 19/01
Nafarroako zergetan Ogasun Lokalen Parte Hartze Fondoaren Zenbatekoa eta Banatzeko Formula 2001etik 2003ra Bitarteko Aurrekontuetan Ezartzekoa	01.06.13	EH	Pro - 20/01
Zenbait medikamenturen prestazio osagarria Nafarroako Foru Komunitateko fondo propioen kargura ezartzeari buruzko irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretua aldatzekoa	01.06.19	SPN	Pro - 21/01
Osasunari buruzko Azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa	01.06.19	SPN	Pro - 22/01
Nafarroan Musikako Goi Maila-LOGSE Ezartzeari buruzkoa	01.06.26	CDN	Pro - 23/01
Nafarroako Foru Komunitatean Irratikomunikazioko Instalazioak Ordenatzeari buruzkoa	01.06.27	Rubio Salvatierra andrea (Mistoa)	Pro - 24/01
Nafarroako Foru Komunitatean Musika Goi Ikasketak Ezartzeari buruzkoa	01.06.26	SPN	Pro - 25/01
Maiatzaren 24ko 10/2001 Foru Legea, Nafarroako Administrazio Publikoetako langileen neurriei buruzkoa, aldatzen duena	01.07.02	UPN	Pro - 26/01
Jarduera Ekonomikoen Zergagatik Ordaindutako Kuoten Dedukzioari buruzkoa	01.08.21	SPN	Pro - 27/01